



KOSTUEN EGITURA

Gure kostuetaz hitz egiterako orduan bi kostu mota desberdin hartu behar ditugu kontuan: hasierako inbertsioa izango den kostua eta gure jarduerekin hastean hilabetero izango ditugun kostuak. Bi tauletan bereizita sailkatu ditugu hauek.

Kostu hauek ahal bezain zehatzak izateko kostu finkoak nahiz aldakorrak hartu ditugu kontuan. Kostu finkoetan jada Zumaian aukeratu dugun lokalaren alokairua, aseguruua eta bere lanaldi partzialarengatik irakasleari ordainduko diogun soldata kokatu ditugu. Kostu aldakorretan, bestalde, elektrizitatearen, zaborra eta uraren zerbitzuaren eta telefonoa nahiz wifia izatearen zerbitzua kokatu ditugu. Elektrizitate-sarera konektatuta egotea ordaindu arren, ez dugu gure elektrizitatearengatik ordaindu beharko, gure argia eta musika pizteko dantzarien eta kirolarien energiak lur zinetikoaren bidez sortutako energia elektrikoa erabiltzean datza eta gure proiektua. Gainera, energia soberakin asko izango dugunez, energia hau guztia saltzen, galerak eduki beharrean, hilabete askotan irabazi txikiak izango ditugu elektrizitate sarean konektatuta egoteagatik

HILABETEROKO KOSTUAK	
KOSTU FINKOAK	PREZIOA
ALOKAIRUA (hilabetero)	830 €
ASEGURUA (urtekoa)	325 € (hilean 27,1€)
IRAKASLEAREN SOLDATA (lanaldi partziala, kontratua amaitu arte)	1000€ / hilabeteko
KOSTU ALDAKORRAK	PREZIOA
ELEKTRIZITATEA (hilabetero)	25€ (mantenua)
ZABORRA + URA (2 hilean behin)	40€ (hilean 20€)
TELEFONOA (telefonoa + telefono zenbakia + wifia)	40€ / hilabetean (40x12= 480€ urte bat)
BESTELAKO GASTUAK (Garbikariak etab.)	20€
HILABETEROKO KOSTUA	1962.1€



HASIERAKO INBERTSIOA		PREZIOA
ALTZARIAK	ALTABOZA	100€
	BANKUA	200€
	ARGIAK	125€
	ZABOR ONTZIAK	5€
ALOKAIRUA		830€
LUR ZINETIKOA		14000€ (350€ / plaka bat * 40 plaka)
HASIERAKO KOSTUAK GUZTIRA		15260€

Gainera, gure enpresak hainbat kostu berezi izango ditu, jaialdiak antolatzeko asmoa dugulako. Jaialdi hauek, noski, kostu berezietan gain, irabazi bereziak ekarriko dizkigute. Irabazi hauek monetarioak ere izango dira, baina garrantzi handiagoa ematen diogu *DARGIA*ren kideok irabazi sozialak lortzeari. Guretzako "irabazi sozialak" herrian dugun kale presentzia handitzen du funtsa, eta, hori lortuz gero, kostu berezi hauek merezi izango dute.

Hiru hilabetez behin, beraz, jaialdien inizatiba martxan jarriko dugu. Ikasleen guraso, lagun edota nahi duen edozeinentzako ekitaldi bat antolatuko dugu. Nahi duten ikasle guztiek parte hartuko dute eta dantzatzen ikasten jarduten duten aurreko hilabeteetan helmuga bati begira egingo dugu lan, ikasleen motibazioa bermatuz.

Beraz, kostu orokorrez gain honako hauek izango dira gure enpresaren kostuak eta hauek zehaztutako egunetan soilik ordaindu beharko ditugu.

KOSTUA BEREZIAK	PREZIOA
ARROPAK	200€
JANARIA	100€
PRODUKTUAK (kamisetak)	250€ (5€ / kamiseta * 50 bat kamiseta)



Kostu handietaz hitz egiten dugu gurea bezalako enpresa txiki batentzat, baina irabazi handiagoak espero ditugulako da hau. Lehenengo hilabeteetan soilik 200 ikaslek "PLAN A" ikastaroan izena ematea espero dugu, beraz, tasa horien diru-sarrerekin soilik, lehenengo hilabeteetan hileroko 5000 bat euroko diru sarrerek izango ditugula aurreikusten dugu. Ikasleen kopurua denborarekin handitzen joango da, eta dudarik gabe gero eta ikasle gehiagok "PLAN B" deiturikoan emango dute izena, beraz, urte gutxi barru, gure kostu hauek gehiegi aldatzen ez badira, bankuari emandako mailegua bueltatzeko gai izango gara eta etekin handiak izango ditu gure enpresak. Etekin hauen %30 bat enpresako kide bakoitzari banatuko zaio eta %10a erreserbatu egingo da *DARGIA*k izan ahal dituen beste hainbat kostu potentzial ordaintzeko.